



Ikuspegi paregabea herriko kaleak eta parkeak, zein inguruko mendiak elurrez beteak ikustea.

Elurra teilatuan...

■ Asteazken zehar iragarritako elurteak Lasarte-Oriako teilatu, zein kaleak zuritu zituen larunbatean

Larunbata goizean, herritarrek esnatu eta Lasarte-Oria elurtua ikusi zuten. Egun hauetako eguraldi iragarpenak azkenean egi bihurtu ziren. Ostirala gauean eroritako elurra eta larunbateko haize hotzak eta tenperaturak herritarrei, haurrei, zein helduei elurrarekin gozatzeko aukera eman zien. Elur malutak maiz erortzen ikusi ziren goiz osoan zehar, arratsaldean berriz elurtea. •

Antonio Mercero Yarza, musikaren bidez gogoan

Ilgandean ehun urte dira, Antonio Mercero Yarza herriko musikaria jaio zenetik.

Data seinalatu hori ospatzeko, ostiralean Brigitarren komentuan kontzertu berezia eskaini zuten, Ainhoa Mercero sopranoak, Alberto Sáez Puente pianojoleak eta Estibalitz Aldekoa arpajoleak.

Berezia, batetik partehartzaileetako bat, Ainhoa Mercero sopranoa, Mercero beraren biloba delako eta, bestetik, kontzertuko lehenengo zatian

1973an zendu zen musikari lasarteoriatarren abesti eta konponketak entzun zirelako, hala nola, *Zurekin ama, Sokorroko amari, Jesus gure Jainkoa* edo *A Santa Teresita*.

Bigarren zatian, berriz, konposatzaile handien, Haendel, Mozart, Fauré, Puccini edo Guridiren lanak eskaini zituen hirukoteak.

Amaieran, komentura hurbildu ziren herritarrek txalo zaparrada batez adierazi zuten bere esker ona. •



Txalapartaren doinuek eta omenduaren bizitzaren errepaso txiki batek eman zioten hasiera omenaldiari. Era berean, kontzertu osoan zehar, Antonio Mercero Yarza oroimenean izan zuten ikusleek, haren eta familiaren argazkiak proiektatzen baiziren.



Eguberrietan
ekintza ugari
burutu dira
herrian /4-5

KIROLA /2

Estatuko dardo txapeladunak Lasarte-Orian

HIRIGINTZA /3

Loidi-Barreneko eremuko lanak, Murias S.A. enpresaren esku

GIZARTEA /6

Zaharren egoitzeko langileak soldata duin baten alde

KIROLA /2

Ikastetxeetako intalazioak egokitu eta hobetzeko lanak martxan daude



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

**SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU,
EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI**

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURALEAN



Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

Izaera puntuala duten kirol jarduerentzako dirulaguntzak

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuaren 2009-2010 ikasturako Kirol Egitasmoak, Udalerriaren garatuko diren kirol gertakizun puntualen antolaketaarako laguntzak ematea aurikusten du.

Arazoi honegatik, urtarriaren 15a bitartean, interesa duten kirol elkarteek 2010. urteko proposamena aurkeztu ahal dute.

Eskaera

Lasarte-Oriako Udalerriaren erregistroan aurkeztu behar dira eskaerak astelehenetik ostiralerara 9:00etatik 13:00etara.

Proposamenarekin batera dokumentazioa aurkeztu behar da, besteak beste, kirolletako jardueren puntualei dirulaguntzak ematea erregulatzen dituen oinarriak onartzeko konpromisoa, elkartearen identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia edo Eusko Jaurlaritzaren kiroleko elkarte eta erakundearen erregistroko inskripzioaren ziurtagiriaren fotokopia.

Eskaerak Lasarte-Oriako Kirolen Udal Batzordeak aztertu eta, egokia bada, onartuko ditu. •



Arg.: Gorka Aristegi

Esteban Martínez eta Josu Olmos Gipuzkoako txapelketako dominekin.

Judokak lehiaketaz lehiaketa

LOKEko judoek ez dute atse-denik izan abenduan. Asteburu guztietan lehiaketak izan dituzte eta emaitza onekin gainera, hirugarren postua Euskadiko txapelketan eta zilarrezko eta brontzeko dominak Gipuzkoakoan.

Infantil mailan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko 1go klasifikatarioan, berriz, Oscar Garrido eta Fermin Baldak bigarren postua eskuratu zuten Asier Zubizarreta Mikel Gonzalezek zazpigarrena.

Honetaz gain, gerriko beltza eskuratzeko txapelketa jokatu zen Tolosan.

Esteban Martinezek gerriko beltza eskuratu zuen, Mario Garridok puntuak lortu zituen hau eskuratzeko, eta Asier Sagastik puntuak 2. dana lortzeko.

Euskadi eta Gipuzkoako txapelketak

Bestalde, Beñat Elizadek brontzeko domina eskuratu zuen senior mailako Euskadiko txapelketan.

Hernanin jokatu zen kade-te mailako Gipuzkoako txapelketan, aldiz, Esteban Martinezek zilarrezko domina eta Josu Olmos brontzeko ekarri zuten herrira.

Beste judoek, Mario Garridok eta Imanol Gonzalezek bosgarren postuan bukatu zuten lehiaketa.

Era honetara, Esteban Martínez, Josu Olmos, Mario Garrido eta Abayuba Gonzalez Gasteizen asteburu honetan lehiatu den Euskadiko txapelketan borroka bizian egon dira.

Zenbakia itxi baino lehen, ezin izan dugu emaitzarik lortu. Beraz, hurrengo zenbaki batean emango dugu berri.

Kirolari promesa

Honetaz gain, iaz, 2009an zehar lortutako emaitzak kontuan izanik, taldeko bost gaztetxo, Esteban Martínez, Amaia Curiel, Leire Zubizarreta, Uxue Urkia eta Kiara Tobajas kirolari promesa izendatuak izan dira. •



Arg.: Jose Ignacio

Juan Mari Caballero, Miguel Angel Castro, Imanol Romero eta Pedro Castro dira taldekako Espainiko txapelkun berriak.

Lasarteoriatarrak dardotan Espainiako txapelkun

■ Chicago-n maiatzetan jokatu den Munduko Txapelketarako txartela ere eskuratu dute

Lasarte-Orian dardo jaurtitzale eta zaletu asko ditugu. Horren erakusle, ostirala eta larunbatetan hainbat tabernatan jokatzeko diren lehiaketak dira.

Hauetan gainera Estatuko edo nazioarteko txapelketa ezberdinetarako txartela lortu daiteke.

Gauzak honela, abenduaren 5, 6, 7 eta 8an Gironan jokatu zen Espainiako txapelketan herritar ugarik hartu zuen parte. Eta horietako batzuk gainera, Estatuko titulua eskuratu zuten.

Irabazleak taldeak

Esate baterako, Easo 03 taldeak, Juan Mari Caballero, Miguel Angel Castro, Imanol Romero eta Pedro Castro herritarrek osatua, taldekako lehenengo mailako titulua eskuratu zuen.

Taldeak finalerako sailkapena erraz lortu zuen, partida guztiak jokatuaz.

Hala ere, finalean lehenengo itzulian ez ziren fin ibili eta 3 eta 2 galdu zuten. Bigarrenaren, berriz, indartsu aritu eta 4 eta 0 gailendu ziren.

Era honetara, Espainiako txapelketa eurenaganatu zuten. Baina, honetaz gain, maiatzaren bukaeran AEBtako Chicagon jokatu den Munduko Txapelketan parte-hartzeko txartela ere lortu zuten lasarteoriatarrek.

Infantiletan ere txapelkun

Hala ere, hau ez zen Lasarte-Oriako herritarrek eskuratu zuten titulu bakarra.

Izan ere, Cristian Fuentes, Noski tabernako jokalaria, Infantil mailan gailendu baitzen. •

LASARTEORIATARREN EMAITZAK ESPAINIAKO DARDO TXAPELKETAN

Master mailan

Banakako Cricket-a

7.- Alain Martin (Txuri Urdin-Lasarte).

Lehenengo mailan

Cricket-a taldeak

1.- Easo 03: Juan Mari Caballero, Miguel Angel Castro, Imanol Romero eta Pedro Castro

Banakako Cricket-a

9.- Imanol Romero (Punto-Lasarte).
13.- Juan Maria Caballero (Punto-Lasarte).

Cricket-a bikotekak

5.- Gorka Imaz (Also-Lasarte) eta Juan Pablo Rodríguez (Punto-Lasarte).

Banakako 501

9.- Ion Laruskain (MAD-Donosti).
13.- Pedro Castro (Punto-Lasarte).

Bigarren mailan

Banakako Cricket-a

4.- Jose María Millares (Punto-Lasarte).
9.- Miguel Castro (Punto-Lasarte).

Hirugarren mailan

Cricket Individual

3.- Cristian Fuentes (Noski-Lasarte).

Emakumeen A mailan

Cricket-a taldeak

5.- Rincon 03: Isabel Rodríguez, Elaia Fadrique, Karmele Villena y Cristina Rebollo.

Banakako Cricket-a

7.- Amaia Rebollo (Noski-Lasarte).
9.- Isabel Rodríguez (Rincón-Lasarte).

Cricket-a bikotekak

13.- Isabel Rodríguez eta Elaia Fadrique (Rincón-Lasarte).

Banakako 501

9.- Amaia Rebollo (Noski-Lasarte).
9.- Isabel Rodríguez (Rincón-Lasarte).

Emakumeen B mailan

Banakako Cricket-a

7.- Cristina Rebollo (Rincón-Lasarte).
13.- Anabel Rebollo (Rincón-Lasarte).

Banakako Cricket-a

9.- Ely Vegas (Also-Lasarte).
13.- Zuriñe Lebrero (Punto-Lasarte).

Infantil A mailan

(14 urtetik beherakoak)

1.- Cristian Fuentes (Noski-Lasarte).
7.- Yesica Fuentes (Noski-Lasarte).
7.- Alex Rebollo (Rincón-Lasarte).
7.- Cristina Rebollo (Rincón-Lasarte).

Loidi-Barrenen 100 BOE eraikiko dira

■ Behin betikoz, Murias S.A enpresa arduratuko da eremu horretan egingo diren lanetaz

TXINTXARRI

A benduaren 29an ospatutako Udal-Batzarrean A-14 Loidi-barreneko P-4 lurrazaleko eskubidearen zesioa eta P-6 partzelaren jabetza osoaren behin-betiko adjudikazioa Murias S.A enpresari egotzi zitzaion.

Oposizioan dauden alderdiak Batzarreko puntu hau geldiaraztea eskatu arren, hobeto aztertzeko nahiarekin, azkenean, PSE-EE 8 botoei esker onartua izan zen. EAJ (2), LOHP (1), Ezker Abertzaleak (3) eta Jexux Izetak aurka bozkatu eta EB abstentziora jo zuen.

Puntu honek Babes Ofizialeko 100 etxebizitza eraikitzea ahalbidetuko du eta, era berean, salgai egongo diren 350 garaje eta merkatal gune bat.

"Guk etxebizitzak eraikitzearen alde gaude. Aurka bozkatu dugu, txostenetan helarazten zaizkigun informazioak kontrakoak direlako. Zuen artean adostasun minimoa izan dezazuten eskatzen dizuegu Batzarreari etorri baino lehen" adierazi zuen ezker abertzaleko bozeramaileak.

Irregularitasunak

Oposizioak ikuskatzaileak egindako informe bat aipatu

zuen Batzarrean. Honen arabera, Murias enpresak zituen arazo ekonomikoak zirela eta, lehiaketako oinarriak ezartzen zituen epeak ez betetzera eraman zuen.

Hau horrela, egospen lehiaketa publikorako deialdi berria egitea proposatu zuen oposizioak.

Era berean, udalak egindako beste informe baten arabera, eskaintzaren baldintzetan egondako arazo baten ondorioz, Muriasek ezin izan ziola obrei ekin aditzera ematen da. Baita jada zehazgabetasunak zuzenduta daudela eta dena martxan jartzeko prest dagoela ere.

Lasarte-Oriako herritarren plataformako bozeramaileak den Ana Prietok, Udalaren jarrera kritikatu zuen, "zergatik hainbesteko presa puntu hau onartzeko, urte betez alboratuta egon denean? Zergatik, justu teknikariak oporretan daudenean?"

Galdera honi zorroztz erantzun zion Ana Urchueguía alkateak, "hirigintza departametuak eta idazkari orokorrak egindako informeei Muriasek epeak ondo bete dituela berresten dituzte."

Gogor defendatu zuen ere bere taldeak hartutako jarrera "ikuskatzaileak egoera finantzarioari buruz informatzera



Loidi-Barreneko Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikuntza Murias enpresaren esku geratzen da. Arg: L-Oko Udala

mugatu beharra zuen" gaineratuz.

Industrialdea

Udal-Batzar honetan, A-7 Michelin 2 HIEan Plangintza-kon arau subsidiarioen hasierako aldaketa egitea ere onartu zen.

Honek, Buruntzaldeko Industrialdeako zati izango den Lasarte-Oriako eremua eratzea ahalbidetuko du Michelingo biltegien zonal-

dean, futbol zelaiaren ondoran.

Bertan, pabiloi industrial eta bulegoak eraikiko dira eta "200 lan postu berri sortzea aurreikusten da" aipatu zuen Udalak.

Europar Batasuna

Honetaz gain, PSEE-EE Udal taldeak, Espainiaren 2010ko Europar Batasuneko presidentziari buruzko mozioa aurkeztu eta onartu zuen.

Era honetara, europear bandera ezarri dute Udal-Batzar aretoan Ikurriña, Lasarte-Oria eta Espainiako banderekin batera.

Halaber, maiatzaren 9an Europa Eguna ospatuko da herrian ekintzaren bat antolatuz.

Eta azkenik, Espainiako Udalerrri eta Probintzien federazioari abenduaren 29an hartutako akordio honen berri ematea onartu zuen. •

ETAk hildakoak gogoratuko dira otsailaren 15ean

A benduaren 30ean burututako plenoan PSOE alderdi politikak aurkeztu zuen mozioak ETak eragindako biktimak instituzionalki errekonozitzea, eta biktimei zein euren senide eta gertuko pertsonen elkartzatuna erakustea zuen helburu.

Otsailaren 15an, eta Lasarte-Oriako udaletxea eratu zeneko 24 urte beteko direla aprobetxatuz, Udalak ekitaldi bat egingo du "Terrorismoaren biktimei" izenpean, oroitzapen plaka bat jartzeko. "Euren sufrimendua aitortzea, biktimek izan duten arreta falta eta askatasunen defentsan izan duten paper garrantzitsua" aditzera ematea da udal gobernuaren asmoa.

PSOE, LOHP eta PPren botoei esker aurrera ateraz proposamena. Bestalde, EBko Ricardo Ortegak eta Jexux Izetak abstentzioaren bidea hartu zuten.



ETak hildakoen familia eta gertukoenei elkartzatuna erakusteko aurkeztu zuen mozioa plenoan PSOEk.

Testu eskasa

Bi politikari hauen ustez, testuak osatuagoa behar zuen. "Nire ustez iniziatiba positi-

boa bada ere, ez ditu biktima guztiak islatzen" adierazi zuen Ortegak.

"Ezin dira diktadurak eta

faxismoak eragindako biktimek ahanzi, are eta gehiago trantzisio garaian hartutako neurriak direla medio hiltza-

leak kalean daudenean" gaineratu zuen.

"Abstenitu egingo naiz errekonozimenduen apartaduan GALen biktimak, zein diktaduran eta guda zibilean heriotza aurkitu zuten hainbat biktima kanpo geratzen direlako" adierazi zuen Izetak.

Askatasun Parkea

PSOEren proposamen honen hirugarren puntuan onartu zenez, Okendoko PERlan sortzen den parke berriari, hau da, Brigidatarren baratzak ziren kokatuta egongo den parkeari, terrorismoaren biktimak gogoratzeko Askatasun Parkea izena jarriko zaio.

"Terrorismoaren biktimei-ko errespetu gisa, parke enblematikoa izango delokan, oso izen egokia irudituz gaig Askatasun Parkea" gaineratu zuen Iñaki Mugica, PSEE alderdiaren Udal Taldeko bozeramaileak. •

Urte zaharrari agur,



Xiukoren, Olenitzeroren lagunaren bita izan zuten haurrek oporrak baino ihien.



Oñatiko Ganbara abesbatzaren kontzertua berezia. Folklorea eta gabon kantak uzartu zituen Oñatiko abesbatzak. Gainera, Esteban Urzelaiak abesbatza zuzentzen zuen azken kontzertua izan zen Lasarte-Oriako.



Haur eta gazteok ederki gozatu zuten *Ur festan* eta, batez ere, *Gabonakiko Haur park*eko joko, alfer eta enmaldicen.



Udalik eta Aterpeak kaleak girotu zituzten merkatuak itza bultzazelo.



KT Glo gazteok Aretara joan eta eskatzen edeki gozatu zuten.



Albola abesbatzak parrokian eta Arantzazulo elizan abestu zuten.

XVII. jaiotzen lehiaketako irabazleak. Abenduaren 3an banatu zituen Darok Kide Gurasoen elkartek jaiotzen lehiaketako sariak. Aurtengo XVII. edizioa izan da eta guztira 28 lan aurkeztu dira. 6 eta 9 urte arteko haurren mailan, iaz bezala, Javier eta Pablo Herrenos Elvirak eraman zuten sari nagusia eta J. Manuel Monjeren ikasleek, bertiz, bigarrena; 10 eta 13 urte arteko gaztekoen mailan neska talde batek, Aitziber Rubio, Igone Gonzalez, Aroa eta Irune Casadok eskuratu zuten, bigarren postuan Monjeren ikasleak geratu ziren; 14 eta 17 urte artekoen mailan, Mario Garrido Diezen eskutara joan zen lehenengo saria eta Monjeren ikasleentzat bigarrena. Azkenik, halduen mailako sari nagusia Tomi Galanentzat izan zen eta bigarrena bertiz, Arantza Diez Fernandezentzat. •



berriari ongi etorri



Tentu handiz entzun zituen Olenitzerok herriko gaztekoen eslauek.

Urteroko hitzordua abaztu gabe, Lasarte-Oriara etorri zen Olenzero

Urtero legez, Takun Kultur Ekarpeak antolatuta, Olenzerori ongi etorria emateko ekitaldia ospatu zen abenduaren 24an Kiroldagiko ondoko frontoi berrian.

Eskerrak frontoian gurela hitzarmena Olenzerorok, euri zaparrada ederrak bota zituen eta!

Olenzero herrian zegoen eta hori nabaria zen gaztebo- en aurpegia islatzen zuten urdunatsunari errepikatuta.

Olenzeroren bila
Kalejiran eta jaigiroan ikusi

genituen herriar ugari Analur eskolako iritziaren atzetik. Lasarte-Oriako erdijunean dantzan igaro eta frontoi berria iritsi arte jarraitu zuten. Bertan ere, musika pro- tagonista.

Baina bat-batean, Porrotx azaldu zen Olenzeroren hiru lagunekin. Esperientziak, magia... denetik eskaini zuen laukoteak eta uneak pozik ikusi genituen Olenzeroren zain.

Olenzero herria iritsi zela abisatu eta Xixuko bere bila joan zen. Frontoiako bila

ilun zegoenez, haur batzuk agitu zituen ibilbidea Olen- zerori.

Esakuntza truke, gozokia
Aurreko urtean jarritako hitzordua ahanzi gabe, hor- txe genuen gure eskutitzak jasozelo prest Olenzero.

Zoriontsu zegoen Olenze- ro muxuak eta patxintxiak banatzen Xixukoren laguntza- rekin. Zintzoak izandakoak, ziurrenik eskatutakoak jasoko zuten.

Gainontzeok datarren

uterarte ibatzen behar!



Lehenengo urtez, Sigardotegi kalek frontoi berria kaleja alaian joan ziren herriarrik.



Porrotx eta Olenzeroren lagunak eramanguri egin zuten ibaronalda.

ANAIK

J A N T Z I - D E N D A

40 urte zuekin!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel: 943 362386

Naturaren argazkilariak lehiaketako erakusketa

Wildlife Photographer of the Year naturari buruzko argazkigintzako lehiaketa garrantzitsuen eta ezagunena da.

British Museum-ek eta *BBC Wildlife*-ek antolatua, mundu osoko milaka partaide izan ohi ditugu, 2008an, esate baterako 32.300 irudi baino gehiago aurkeztu ziren.

Kutxaren babesari esker, 2008. urteko lehiaketan epai-

mahaia saritu zituen eta aipamen berezia jaso zuten irudiak ditugu Manuel Lekuona kultur etxeko erakusketan.

Kalitate eta edertasun handiko argazkiak, beraz, *Naturaren argazkilariak* erakusketan ikusgai direnak.

Erakusketa urtarillaren 21a arte bisita daiteke, astelehentik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara. •



Lasarte-Oriako Udaleko eta Kutxako ordezkariak erakusketaren inaugurazioan.

Gazte ikastaroetan izena emateko azken egunak

Hamalau urtetik gorako gazteentzako hainbat ikastaro prestatu ditu Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria sailak, 2010eko lehenengo hiru hilabeteetarako.

Astean behin, bi orduz edo ordu eta laurdenez ikastaro ugari eskainiko dira eta esparru ezberdinekoak gainera. Era honetara, dietetika eta nutrizioa, batuka, txotxongiloak, mineralak, pokerra, gaur egungo artea ulertzeko, saltsa, kamisetak zure gustuko marrazkiekin egiteko, argazkigintza: kamera digitalak edo sabel dantza ikasteko aukera dute herriko gazteek.

Izena ematea

Izena emateko azken egunak dira hauek, izan ere, urtarilla-

ren 13ra arte egongo da epea irekia gazteentzako informazio bulegoan.

Interesatuak bazaudete mugi zaitezte, ikastaro guztietan ikasle kopurua mugatua baita.

Ikastaro bakoitzeko 20 euro ordaindu beharko dituzte Lasarte-Orian errolatutako gazteek eta errolatu gabeak, aldiz, 30 euro.

Arestian, aipatu bezala 14 urte baino gehiago izan behar dituzte gazteek eta Lasarte-Oriako gazte txartela dutenek beharpena dutela gogoratzen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hurbildu Manuel Lekuona kulturetxeako hirugarren solairuan dagoen gazteentzako informazio bulegora. •

Atsobakarreko langileak soldata duinaren alde

Atsobakar zaharren egoitzeko erizaintza laguntzaileak eta garbitzaileak konzentrazioak egingo dituzte aste osoan zehar herriko leku ezberdinetan.

Langileek jakin arazi digutenez, egun egoitza kudeatzen duen enpresak, *Clecek* ez die soldata ordaintzen Udalarekin sinatua dagoen subragazioaren arabera. "Aurreko enpresak baino gutxiago ordaintzen digu gainera," adierazi digute. Eta,

honetaz gain, enpresak jai egun eta baimenak murriztu egin dizkie.

Langileek azaldu digutenez, Udalari arazoa konpontzeko enpresa eta langileen arteko bitartekari izateko eskaerak egin dizkiote langileek, baina honek ez omen die kasurik egin.

Konzentrazioak

Horregatik, soldata duina eta langileen eskubideak bete daitezten eskatzeko, honako

egunetan eta lekuetan bilduko dira:

Gaur, 11:00etatik 11:30era Atsobakar egoitzaren aurrean eta 11:30etik 12:00etara egoitza ondoko autobus geltokian; bihar, 11:00etatik 12:00etara Udaletxearen aurrean; asteazkenean, 11:00etatik 12:00etara Villa Mirentxun; ostegun eta ostiralean, 11:00etatik 11:30era Atsobakar egoitzaren aurrean eta 11:30etik 12:00etara egoitza ondoko autobus geltokian. •

Ikastetxeetako instalazioak egokitu eta hobetzeko lanak

Lasarte-Oriako Udaleko alkateak inbertsio garrantzitsua egingo du Landaberriko egoitza nagusia eta Garaikoetxea eraikina eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeako eraikinak egokitzeko eta hobetzeko.

Inbertsio orokorra 747.210 eurokoa da eta lanak aurrera eramango dituen enpresa esleipenduna Miguel Imaz S.A. izan da. Lanak abenduaren 23an hasi ziren lau ikastetxeetan eta apirilean amaituko dira.

Ikerketa eta lanak

Instalazio ezberdinek zituzten beharren ikerketa egin zuen Udalak eta horrek eman ditu eraberritze orokor baterako gida-lerroak.

Landaberriko ikastolan komunak berrituko dituzte eta gimnasioko zoladura aldatuko dute intsonorizatzeko duen parket flotatzailea jartzeko.

Lanen barne dago baita ere frontoiaren estalkia eta fatxada konpontzea, jolastokian itxiera berria jartzea edo bideak asfaltatzea.

Garaikoetxeako eraikinari dagokionez, jolastokiko ozto-



Garaikoetxeako jolastokian lan ugari egingo dira hobetu eta egokitzeko.

po arkitektonikoak kenduko dituzte, segurtasunezko lurzoru berriak jarri eta berokuntzan eta baita drainatzeetan ere hobekuntza lanak izango dira.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe Sasoetako eraikinaren zenbait estalki berrituko dira, zoladura jartzeko lanak egingo dira, arotzeriako obrak fatxadan, oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte eta

jolastokian segurtasunezko lurzoruak eta haurrentzako jolasak jarriko dituzte, besteak beste.

Azkenik, Zumaburuko egoitza jolastokia jostailuz hornitzea, komunetako berrikuntza, leihotako mentsulen berrikuntza edo EPA kokatzen den hirugarren solairuko intsonorizazioa dira Udalak aurrera eramango dituen lanak. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legeko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

Kutxaren babesa duen Naturaren argazkilaria 2009 lehiaketako argazkiak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara



Osteguna, 14

Zinea

Okendo Zinema taldeak antolatzen duen Osteguneko zinea atalean, Sila cosa funciona filma ikusgai izango da. Sarrera, 4,15 euro.

Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean, gaztelaniaz Antolatzailea: Okendo Zinema Taldea

Ostirala, 15

Jam saioa

Max Mbaye eta taldea Jalgin: Le Walo (Afro). 23:00tan

Igandea, 17

Zinea

Haurrentzako zine atalaren barruan, Dos canguros muy maduros filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro.

Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, gaztelaniaz



Senegalgo margoen erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN Senegalgo margolari baten erakusketa koloretsua ikusi daiteke. Artea Afrikan izeneko erakusketa ekarri du Max Mbaye senegaldarrak. Hainbat koadro ikusgarri zintzilikatu ditu. Salgai daude gainera. Aipatutako Max Mbayek saxoa jotzen du eta bere taldearekin etorriko da hilaren 15ean Jam Saio bat eskaintzeko. Afro doinuak entzungo dira beraz ostiral horretan.

HILABETE OSOAN ZEHAR
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala, 22

Antzerkia

Udaleko Gazteria sailak eta Xpression kultur elkarteak antolatzen dituzten Gazte emanaldietan, lehenengoz kafe antzerkia eskainiko da, Matxinen "Yo seré el number one" lana ikusi ahal izango da.

Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian, arratsaldeko 20:00etan, gaztelaniaz

Igandea, 24

Zinea

Haurrentzako zinea sailean, Planet 51 filma eskainiko da. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, euskaraz

Asteazkena 27

Ipuin-kontalaria

Koruko Zurutzak ipuin bat irakurriko die liburutegira

hurbiltzen diren haur guztiei. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, euskaraz

Osteguna, 28

Zinea

Okendo Zinema Taldearen osteguneko zinean, El luchador filma ikusgai izango da. Sarrera, 4,15 euro.

Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera,
10:00etatik 13:00etara eta
17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

ESAZU IRRATIA



Esazu irratiko programazioa

Ostiraleko programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiraleko 9:45etik 11:45era. Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Euskal Inauterien konpartsa

Euskal Inauterien konpartsako antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHlko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitezte parte hartzera!

EHNA

EHNArekin arazorik izan badi-tuzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitezke posta elektroniko honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

Landaberri Antzerki Eskolako zozketa

Santo Tomas egunean, Landaberri Antzerki Eskolako errifren zozketa egin zen, eta hauek izan ziren zenbaki saridunak: 1. Sarirako 1004; 2. Saria 4504; 3. Saria 1306; 4. Saria 4306; 5. Saria 4381. Saria eskuratzeko, 943 371 448 telefono zenbakira deitu behar dute onuradunek urtarilaren 21a baino lehen. Zorionak sarituei!

Saharari laguntza

Sahararen Aldeko Euskal Karabana hasi da lanean "Piztu Itxaropena" lelopean eta urtarilaren 22ra bitartean elikagai eta konpresak bilduko ditu Lasarte-Oriako ikastola eta eskoletan, super-merkatuetan eta Emakumeen Zentro Zibikoan. Añorga eta Usurbilgo ikastoletan eta herri honetako dendetan ere jarriko dira biltzeko ontziak eta baita, hurrengo urtarilaren 23an, Urbil merkatal-gunean ere.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Eskutitzak

Andatza plazako biztanleen kexa

Andatza plazako bizilagunak aspertuta gaude, ospakizunen bat dagoenean, beti gure plazan egiten delako, eta jakina ospakizun horiek zenbait eragozpen eta traba eragiten dituztelako.

Andatza plazan kontzerturen bat dagoen bakoitzean gure umeez ez dute lorik egiten eta goizeko laurak arte luzatzen diren zarata amaezin horiekin izututa izaten dira.

Ez gaude era honetako ekitaldien aurka, baina bai beti gure plazan antolatzearen aurka. Urbarten ez al dago bada plazarik? Ahalik eta bizilagun gutxienari eragozpenak eragiteko beste espazio zabalik ez al dago?

Hurrengo jai eta ospakizunetan kontutan izateko eskatzen dugu.

Eskerrik asko

Eduardo Garcia Uriarte

Euskal presoek borrokaldiari buruz herritarrei

Idazki honekin herritarroizuzentzen gatzazkizue Euskal Preso Politikoen Kolektiboko partaide garen aldetik, gure kolektiboak abian jarri berri duen borrokaldiaren zentzua agertzeko asmoz.

Urteak dira jadanik borroka iraunkor bati hasiera eman genionetik, hilean hainbat alditan ekimen ezberdin finkoak burutuz, baita kartzelatan ematen diren eraso

fisikoei erantzunez edota askatasun bidean geratzen diren hildakoei gorazarre gisa protesta eginez.

Oraingoan, borroka intentsitatez koska bat igotzea erabaki dugu gure eskubideak aldarrikapen bihurtzeko, jakiten garelako Euskal Herriko jendartearen gehiengoak bat egiten duela, bai Euskal Herriarentzako autodeterminazioaren defentsan nola amnistiaren onarpenean. Badira, halaber, bitartean lortu beharreko garrantzi handiko beste eskubide urra-

tu batzuk ere: preso politiko- en estatusa, presoek Euskal Herriratzeko, isolamendu egoerakin bukatzea, eta hauek gain gaixotasun larriekin dauken kideen eta zigorra bukatuta preso mantentzen dituztenen kaleratzea.

Honengatik dei egiten dizuegu eskubide hauen bidezotasuna eta zuzentasuna aintzat hartuz, euren defentsan antolatzen diren ekimen guztietan parte hartzera.

Herriko euskal preso politikoak



Melchor, Gaspar eta Baltasar erregeak arratsaldean egon ziren herriko haurrekin.



Atsobakar Egoitzara eguerdian joan ziren Erregeak.



Sagardotegi kalean jaso zituzten eskutitzak erregeen laguntzaileek.



Erregeak Brigitarren komentuan gelditu ziren Jesus haurtxoa gurtzeko.

Xirimiriari eta hotzari aurre eginez, Erregeak Lasarte-Oriara iritsi ziren

Hogei minutuko atzerapenarekin baina, zuzirien hotsak Erregeen etorreraren berri eman zuten Lasarte-Orian.

Haurren pozarako Ekialde Urruneko Erregeak herriko kaleetan barrena ibili ziren Oriatik Andatza plazara. Ibilbide osoan zehar haur, gazte-
txo eta helduek kabaldata jarraitu zuten.

Itxaronaldian pasatako hotza eta noizbehinka erortzen zen xirimiriari ahaztu eta Erregeak ikustean haurrei irribarrea eta ilusioa nabari zitzaion begietan.

Erregeek geldialdi bakarra egin zuten bere ibilbidean zehar, Brigitarren komentuan. Jaiotzeko Jesus haurtxoa gurtu zuten hiru errege magoek,

opariak emanaz. Eta ostean, komentura sartu eta mojekin solasaldia izan zuten.

Andatza plazara iristean, hitz batzuk esan eta haurren eskutitzak eta nahiak entzun zituzten Melchor, Gaspar eta Baltasarrek.

Goizean, Atsobakarren

Baina haurrek ez ezik, Atsobakar egoitzeko lagunek ere

hiru Errege Magoak ikusteko aukera izan zuten goizean.

Lehenengo urtea da, Ekialde Urruneko magoek eguerdian bisita hau egiten dutena. Bertakoak agurtu eta ilusio handiz hartu zituzten guztiek opariak erregeen eskutetatik.

Laguntzaileek, berriz, beste eginbehar bat zuten Sagardotegi kalean, haurren eskutitzak bildu. •

Lehenengo aldiz, Ekialde Urruneko hiru magoek Atsobakar egoitza eguerdian bisitatu zuten



**ELEKTRIZITATEA
ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521
LASARTE-ORIA

